

## XEDAPEN OROKORRAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 1207

*24/2023 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzeari buruzkoa, eta otsailaren 26ko 26/2019 Dekretua eta otsailaren 15eko 30/2005 Dekretua indargabetzen dituena.*

Uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baitira txerri-azienda estentsiboko ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak eta aldatzen baita ekainaren 25eko 1547/2004 Errege Dekretua, unxi-ustiategiak antolatzeko arauak ezartzen dituena, ekoizpen-sistema estentsiboko txerri-azienda ustiategien antolamendu zootekniko eta sanitarioarako gutxieneko arauak ezartzea du helburu.

Nahitaez bete beharreko Estatuko oinarrizko araudiak arautzen ditu, besteak beste, txerri-ustiategi estentsibok bete beharreko gutxieneko baldintzak, hala nola, abelburu-dentsitatea, ustiategien hedadura eta elikadura, eta horietako bakoitza zehazten du, eta alderdion gaineko eskakizunak ezartzen.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak ezartzen duenez, euskal administrazioek abeltzaintza estentsiboa sustatzeko programak bultzatuko dituzte, besteak beste. Kontuan hartuta EAEko txerri-sektoreak ezaugarri bereizgarriak dituela sektore berak beste autonomia-erkidego mugakide batzuetan dituenekin alderatuta, eta Legearen agindua betez, dekretu hau lantzen da.

Uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuan ezarritako definizioak eta baldintzak araututa dauden bezala, sektoreak EAEn dituen behar berezietan behar bezala aplikatzeko eta horietara egokitzeko, beharrezkoa da Estatuko oinarrizko araudia garatzea, bai eta hura Euskal Autonomia Erkidegoan aplika dadin errazteko jarraibide zehatzak zehaztu eta ezartzea ere.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak esku-men eskusiboa ematen dio EAERI «nekazaritzan eta abeltzaintzan, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera», 10. artikuluko 9. apartatuan jasotakoaren arabera.

Autonomia-erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluko b) apartatuaren arabera, lurralde historikoei dagokie erakunde erkideek «2. Animalia-ekoizpen eta -osasuna» arloan emandako arauak garatzea eta betetzea.

Bestalde, kontuan izanda Europar Batasuneko araudian eta Estatuko oinarrizko araudian aldaketa ugari egin direla mahastien berregituraketari eta birmoldaketari dagokienez, eta aintzat hartuta arlo horretan zenbait alderdi tekniko hobeto arautu beharra eta arau autonomikoa aplikatzean agerian geratu diren akatsak zuzendu beharra, komenigarria da otsailaren 26ko 26/2019 Dekretua indargabetzea, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketarako Europako laguntza-neurria garatzeari eta aplikatzeari buruzkoa. Horretarako, lehenengo xedapen indargabetzailea sartu da dekretu honetan.

Halaber, bigarren xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du otsailaren 15eko 30/2005 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko erlezaintzarako laguntzei buruzkoa. Kontuan

izanda Europar Batasuneko araudian eta Estatuko oinarrizko araudian egindako aldaketak, eta aintzat hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko erlezaintza-arloari laguntza hori aplikatzean agerian geratu diren akatsak zuzendu behar direla, komenigarria da laguntza garatzeko eta aplikatzeko araudia ere aldatzea. Egokitu beharra dago, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko araudira eta administrazio-prozedura erkidea arautzen duen indarreko araudira, hau da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; egokitza-penak egin beharko dira forman eta edukian, laguntza-programa betearazteko orduan kontuan hartuko beharko direnak.

Zehaztu behar da dekretu hau egiteko kontuan hartu direla Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legea.

Arau hau Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129.1 artikuluan ezartzen dituen erregulazio onaren printzipioetara egokitzen da. Hala, premia- eta efikazia-printzipioei dagokienez, EAEn txerri-ustiategi estentsiboen arloan nahitaez bete beharreko arauak behar bezala harmonizatzen direla bermatzeko interes orokorrak justifikatzen du dekretu-proiektua. Proporzionaltasun-printzipioa betetzen da, lehen aipatutako premiari erantzuteko beharrezkoa den erregulazioa jasotzen baitu, baita indarrean dagoen araudia biltzen duelako ere. Kontuan hartzen bada arauak printzipio hori indartzen duela, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen da, arlo horretako araudiarekin koherentea delako. Gardentasun-printzipioari dagokionez, entzunaldiaren izapidearen bidez arauaren hartzaileei emandako parte-hartzearengatik betetzen da. Azkenik, efikazia-printzipioa betetzen da proiektu honek ez duelako ezartzen administrazio-karga erantsirik edo beharrezkoa ez denik.

Dekretu hau prestatzeko, kontsulta egin zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako foru-aldundiei, erakunde profesionaleri eta sektoreko elkarte eta erakundeei.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, bat etorri Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko otsailaren 21ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

1.– Dekretu honen xedea da uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretua garatzea, zeinaren bidez ezartzen baitira txerri-azienda estentsiboko ustiategien oinarrizko antolamendu-arauak eta aldatzen baita untxi-ustiategiak antolatzeako arauak ezartzen dituen ekainaren 25eko 1547/2004 Errege Dekretua.

2.– Dekretu honetan jasotako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden eta ekoizpen-sistema estentsiboko txerri-azienten ustiategiei aplikatuko zaizkie.

3.– Autokontsumorako ustiategi estentsiboei, hau da, soilik familiaren kontsumorako diren abereak gizentzea helburu dutenei, baldin eta urtean gehienez 5 gizentzeko txerri ekoizten badi-tuzte eta ugalketarako kopururik ez badute, uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretutik ez zaie aplikatuko:

##### a) txerri-ustiategi estentsiboen sailkapenari buruz 3. artikuluan xedatutakoa,

b) 4. artikuluko 1. apartatuko b), c), d), f) eta h) letretan eta 2. apartatuan gutxienerako baldintza jakin batzuei buruz xedatutakoa,

c) 8. artikuluko 1. apartatuan titularren betebeharrak jakin batzuei buruz xedatutakoa.

4.– Ustiategi estentsibo murriztuei, hau da, gehienez 5 ugaltzaile dituzten ustiategiei, gizen-tzeko 25 abere baino gehiago eduki ez ditzaketenei eta ustiategian 5 AzLUren baliokidea baino txerri-azienda gehiago eduki ezin dutenei, ez zaie aplikatuko uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 2. apartatuko a) letran gutxienerako baldintza jakin batzuei buruz xedatutakoa.

2. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 2. artikuluan jasotako definizioak aplikatuko dira.

3. artikulua.– Txerri-ustiategi estentsiboen sailkapena.

1.– Txerri-ustiategi estentsiboen sailkapena uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan dago jasota.

2.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek animaliak gizen-tzeko beste ustiategi estentsibo batera ateratzeko baimena eman ahal izango dute, soilik baliabide naturalak urtaroaren arabera ustiatzeko, hil aurretik, bat etorritik uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluko 1. apartatuko e) letran xedatutakoarekin.

3.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek, beren lurralde-eremuan, uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluko 2. apartatuko c) letran aurreikusitako gehieneko produkzio-ahalmena modulatu ahal izango dute, ustiategiak dauden eremuen ezaugarrien, ekoizpen-inguruabarren edo ezartzen dituzten beste baldintza batzuen arabera; nolahi ere, gizentzeari aplikatzeko ahalmen hori ezin izango da inola ere ehuneko 20 baino gehiago handitu.

4. artikulua.– Txerri-ustiategi estentsiboen gutxienerako baldintzak.

1.– Txerri-ustiategi estentsiboen gutxienerako baldintzak uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluan daude jasota.

2.– Uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako abere-kargaren kalkulua ustiategiko abereen urteko batezbesteko gisa egingo da, kontuan hartuta huste sanitarioko aldiak eta aldi bakoitzean egiatan dauden abereen pisuaren arabeko baliokidetasunak; 15 gizentze-txerri/ha-ko zifra gainditu ahal izango da, baldin eta batez besteko karga zenbatetsia ez bada 2,4 AzLU/ha/urte baino handiagoa.

3.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek, beren lurralde-eremuan, uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 1. apartatuko a) letrako 1. puntuari aurreikusitako abere-zama murriztu ahal izango dute, gutxienez ergonomia-, ingurumen- eta orografia-irizpideetan oinarrituta.

4.– Uztailearen 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako gainazal jarraituan, lehendik dauden ur-ibilguak eta bideak ez dira muga izango, eta abereak bertatik mugitzeko behar diren bitartekoak jarri beharko dira.

5.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek, beren lurralde-eremuan, handitu edo murriztu ahal izango dute txerri-ustiategi estentsibo berrien gutxieneko segurtasun-distantzia, uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 2. apartatuko a) letrako 1. puntuan aurreikusitakoa, kontuan hartuta ustiategi bakoitzaren ezaugarri agronomiko, orografiko eta ingurumeneko bereziak eta instalatutako gaitasuna.

5. artikulua.– Maneiu eta txandakatze-programa.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek, beren lurralde-eremuan, beren lurraldean kokatutako zerri-ustiategi estentsibo bakoitzerako, Erabiltzeko eta Txandakatzeko Programa bat onartu beharko dute. Programa horrek programa hori betetzen dela kontrolatzeko prozedura bat izango du, ingurune fisiko guztia behar bezala erabiliko dela, ustiapeneko baliabide naturalak aprobetxatuko direla eta lurzorua modu arrazionalen erabili eta txandakatzeko sistemak ezarriko direla bermatuko duena, eta oinarritzeko ekosistema hondatu dezakeen gainustiapena ekidingo duena, uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 1. apartatuko f) letran ezarritakoa errespetatuz. Halaber, programa horren aldizkakotasuna ezarri beharko du.

6. artikulua.– Ustiategiko erregistro-liburua.

1.– Uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, txerri-azienda estentsiboko ustiategien titularrek eguneratuta izan beharko dute ustiategiko erregistro-liburua. Liburu horren eredia Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek onartuko dute beren lurralde-eremurako, eta haren gutxieneko edukia uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoa izango da.

2.– Erregistro-liburua eskuz edo informatizatuta beteko da, ustiategian eskuragarri egongo da, eta ustiategia kokatuta dagoen foru-organoko abeltzaintza-arloko organo eskudunak eskuratu ahal izango du.

Organoak zehazten duen aldiari dagozkion datuak mantendu beharko dira, eta aldi hori ezin izango da ustiategiko jardueraren azken hiru urteak edo ustiategiko jarduera amaitu ondorengo hiru urteak baino laburragoa izan. Azken kasu horretan, kontsultatzeko moduan egon beharko du, ustiategiaren azken titularraren helbidean, edo erakunde titularraren edo abeltzaintza-jardueran gertatu denaren egoitza sozilean.

Ustiategiaren titularrak abeltzaintza-jarduera oro eteten badu, ustiategia kokatuta dagoen foru-organoan abeltzaintzaren arloko eskumena duen organoak agintzen duen tokian gordailutuko da erregistro-liburua.

7. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistro Orokorrean inskribatzea.

1.– Txerri-ustiategi estentsiboak inskribatuta egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistro Orokorrean, zeina irailaren 27ko 203/2011 Dekretuak arautzen baitu.

2.– Dekretu honen 4. artikuluan xedatutako sailkapenen arabera inskribatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Txerri-ustiategi Estentsiboen Erregistroan, dekretu honen 5. artikuluan xedatutako gutxieneko baldintzak errespetatuz eta baliokidetasunak 2. apartatuan ezarritako moduan aplikatuz.

8. artikulua.– Txerri-ustiategi estentsiboen pertsona titularren betebeharrak.

1.– Txerri-ustiategi estentsiboen titularrek uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 8. artikuluan xedatutako betebeharrak izango dituzte.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskuduna izango da Euskal Autonomia Erkidegoan animalien biosegurtasunaren eta ongizatearen arloko prestakuntza- eta gaikuntza-jarduerak ezarriko dituen araudia onartuko duena.

9. artikulua.– Ustiategi berriak baimentzea, eta lehendik dauden ustiategien orientazio zooteknikoa zabaltzea edo aldatzea.

1.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek baimenduko dute, bakoitzak bere lurralde-eremuan, ustiategi berriak edo lehendik daudenak handitzea, bat etorritz uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 9. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoarekin.

2.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek eman ahal izango diete baimena txerri-ustiategi estentsiboen erregistroan behar bezala baimenduta eta inskribatuta dauden ustiategiei orientazio zooteknikoa handitzeko edo aldatzeko, nahiz eta kokapenari eta osasun-banaketari buruzko baldintzak bete ez, bat etorritz uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 9. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin.

3.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek baimendu ahal izango dute, salbuespen gisa eta uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 9. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoa betez, lehendik dauden ustiategiak handitzea.

10. artikulua.– Ikuskapena eta kontrola.

Dekretu honetan eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direla egiaztatzeko ikuskapenak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunei dagozkie, uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa garatuz.

11. artikulua.– Zehapen-araubidea.

Dekretu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen X. tituluan eta uztailaren 17ko 1221/2009 Errege Dekretuaren 11. artikuluan ezarritako zehapen-araubidea aplikatuko da.

**XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Dagoeneko ezarrita dauden txerri-ustiategi estentsiboen erregistroa eguneratzea.

Dekretu hau indarrean sartu aurretik zeuden txerri-ustiategi estentsiboak Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean erregularizatzeko, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako organo eskudunek egingo dute ofizioz, ustiategia kokatuta dagoen lurralde historikoaren arabera, dekretu hau indarrean jarri eta gehienez 6 hilabeteko epean.

**LEHENENGO XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**– Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen da 26/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketetarako Europako laguntza-neurria garatu eta aplikatzeari buruzkoa.

2023ko martxoaren 7a, asteartea

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen da 30/2005 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erlezaintzarako laguntzei buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 21ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.